

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: URA NAHIZ ZABOR TASEN ARLOAN LAGUNTZAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Honen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntza udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da, ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Eskatzailea den pertsonak eskaeran azaltzen den helbidean erroldatuta egon eta bizi behar du. Eskaera etxebizitza bakarrarekiko egin daiteke.

Laguntzak gauzatzeko, ura eta zabor-tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Laguntza ura eta zabor-tasen zenbatekoaren %100era irits daiteke.

Balorazio ekonomikoan etxebizitzan erroldatuta dauden pertsona guztien diru-sarrerak kontutan hartuko dira.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

-Urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) kopuru arte: ordainagiriko %100a.

-Urteko LGS kopurutik urteko 1,5 LGSra: ordainagiriaren %75a.

-Urteko 1,5 LGStik urteko 2 aldiz LGSra: ordainagiriaren %50a.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Eskaera jasotzeko epea urtero martxoaren 1etik 31ra.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.